

Afrikako ipuin/alegiak

Ienea ta untxia

Piztiak norki dirala, alegi asko dagoz eta onein elburua entzuten edo irakurten dabenezai laguntza emotea izaten da, gizaki lez obeak izan daitzezan. Barru estuko izatea, arrokeria eta norberekeria nastean agertzen dira Mozanbikoko alegi onetan.

Ienea ta untxia betiko lagunak ziran. Bien artean eginda, etxe bat euken eta gose-aldia etorri zanean, jatekoa irabazteko, euren emazteakaz eta umeakaz lan-billa joatea erabagi eben.

Untxia leoiaren etxera sartu zan sukaldari-lana egiteko, baiña ieneak lana billatu-arren, ez eban aurkitu. Ikusi eban, unxiak ondo jaten ebala eta loditu be egiten zala leoiaren ondakirikaz eta ienea bekaitzez beterik egoan. Untxia bere lan-lekutik kanpora botatea nai eban bera leku orretara sartzeko.

Bein baten leoia gaisotu egin zan eta egun batzuk, bat, bi, iru egun, igaro ziran eizara joan-ezirik. Ieneak, leoia gaisorik egoala entzun ebanean esan eban:

- Ba-dakit zer egin. Leoiak untxia jatea lortuko dot.- Joan zan leoiaren etxera eta atea jo eban:
- Sartu neiteke, leoi jauna?
- Bai, aurrera- esan eban gosekillik egoan leoiak.
- Agur, Errege aundiak!- esan eban ieneak eskuak alkar joaz.
- Bai aundiak gara, benetan! Zer nai dozu?
- Parkatu nire ezikera txarra!- esan eban ieneak. Parkatu, jauna. Zu gaisorik zengozala entzun neban eta erregea ikertzera etortea erabagi neban. Neure artean esan neban:
- Ezin dautsagu erregeari ilten itzi, osagaia zein dan geuk jakinda!



- Bai, egia da. Gaisorik nago- esan eban leoiak. Zer? Zuk dakizu nitzak osagaia zein dan?
- Ez nik. Ori dakiana zure serbitzaille dan untxia da. Berak osatu nau ni eta nire itauna da, zelan izten ete dauan zuk ainbeste neke igarotea, zu osatu bagerik.
- Argiago esan egizuz gauzak, iena!- esan eutson leoiak.
- Ori orrelantxe da. Nik dirødana da, untxiak ba-dakiala zure osagaia zein dan. Osatu be egin nau baten. Baiña untxi ori biotz txarrekoa da. Zuk miñak eukitea eta zu iltea nai dau. Maltzurra da! Nik ondo dakit zelakoa dan!

Leoiak deitu eutson untxiari eta onek an ienea ikusi ebanean, gauzak txarto joiazelaz uste izan eban.

- Untxia! Zergaitik ez nozu ni osatzen? Zuk ondo dakizu zein dan bear dodan osagaia!- esan eban leoiak.
- Untxia! Ez zaite isillik geratu! Erantzun egizu! Zuk ba-dakizu osagaia! Eta neu be osatu nozu gaiso orretatik!- esan eban ieneak.
- Egia da? Bai ala ez? Ulu egin eban leoiak.
- Ni ez noa guzurrik esaten, jauna. Ba-dakit osagaia zein dan, baiña gatxa da jakitea osagai orren indarra nondik datorren- erantzun eban untxiak, belariak zorrotz ebazala.
- Zer izan leiteke gatxa, errege nazan onentzat? Zer? Ala arbuiatu egin gura nozu? itaundu eban basobaltzeko erregeak asarrez.
- Egia esan, gauza bildurgarria ta aitatzea bel- esan eban untxiak.
- Ai enel- esan eban ieneak: Entzun zer diròan onek. Zein osagaik kentzen dau indarra, aitatu be ez egiteko? Ba... neuk billatuko dot. Bear dana erregea osatzea da.
- Egizu berba oraintxe eta egiten ez badozu ez dozu emendik urtengo bizirik! Esan eban leioak asarratuta.
- Osagaiari indarra emoten dautsona, ienearen biotza da- erantzun eban untxiak, itxura baten samintasunez beterik.

Ieneak entzun ebanean bere biotza bear zala osagaiak indarra euki dagian, zutundu zan bizi-bizi eta iges egin eban urrengo zulotik. Leoi bere atzean joan zan, baiña gaur arte ez dautso oratu. Ordurik ona ieneak eta leoiak gorrotoa dautsoe alkarrari.

† OLAZARtar Martin-ek

